


Herri Urrats 91



Euriak baldintzatu zuen erabat aurtengo Herri Urratsaren martxa.



BOB

Eurijasen gaintetik ere bete ditu helburuak aurtengo Herri Urratsek

Joan zen urtean bezainbat jende ibili zen igandean Senperen

Joan zen urtean bezainbat jende ibili zen igandean, Senperen aintziraren inguruan Zortzigarren Herri Urratsen. Nahiz eta goizetik arrats, aurtengo euria ari izan, 60.000 ziren Seaskaren deiari ihardetsi zutenak. Hautetsiak eta Administrazio kargudunak ere etorri ziren, horietarik batzuek laguntza ekonomikoa ekarri zuten.

XAN GOENAGA / BAIONA

Festa handia izateaz gain, zernahi gerta ere, Euskal Herriak, euskarari ekarri nahi dion sustengu eguna dela frogatu du zortzigarren Herri Urratsak. Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez eta Ibilaldian gertatzen den bezala, jendeak aintzinetik erabaki zuen bere laguntza Herri Urratsen eramatea eta, euria jauts ahala ari izanagatik ere, hartaratu zen iragan igandean.

Gexan Alfarok zioenez, Zortzigarren Herri Urratsak bi helburuak bete zituen: «beste behin gehiago, Senperen aldeko mugimendu herritarra hor ibili da, euskaltasuna plaza-ratuz; beste behin gehiago, horri esker, Seaskak Iparraldean zutik eman eta aintzinarazten duen euskarazko irakaskuntza indartuz joan da».

Laguntza herrikoia ez ezik, instituzio eta politikariengandik sustengu gero eta gehiago biltzen duela Herri Urratsak azpimarratu zuen Jean Louis Maitia, Seaskako lehendakariak. Iparraldeko hautetsiak hogeitamarrez goiti kontatu ziren aurtengoan, Hego Aldeko ere politikariak, EA, EAJ eta HBko ordezkariak, baita ere instituzioetako kargudunak. Sustengu ekartzeaz gain laguntza ekonomikoa ere ekarri zuten batzuek. Inazio Oliveri, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak 750.000 pezetako txekue bat eman

✓ Festa handia izateaz gain, zer nahi gerta ere, Euskal Herriak, euskarari ekarri nahi dion sustengu eguna dela frogatu du zortzigarren Herri Urratsak.

zion J.L. Maitiari, Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, 600.000 pezetako, EAK 200.000 pezeta eskaini zizkion Seaskari.

ANTOLATZAILEAK POZEZ ZORATZEN

Nahiz eta euria etengabe ari, edan eta jateko prestatu tokietan nahiz animazio guzietan jendea egonki zela ikusirik, pozez beterikako harridura agertu zuten antolatzaileak. Egitarau ia oso rik atxikia izan zen, bertsolari, kantari, dantzari antzerkilari, denek saioa egin zuten. Muntadura aldetik hobekuntza franko egin ziren hala nola, haurrentzako jolastoki handiago eta erosoagoa, artista eta eskulan erakusketendako aterpea tokiz aldatuz eta askoz zabalagoa. Eguna- ren ondarrean antolatzaileetarik bat- tek erakustera eman zuen aurtengo Herri Urratsak irakatsi ziela nola os-

patu eguna euripean, irakaspen horretaz jabeturik, datozen urteetan eguraldi arazo guztiei buru egiteko prest izango direla azaldu zuen.

Bederatzi eta hamargarren Herri Urratsak ere Senperen aintziran ospatuko direla, duda izpirik gabe utzi zuten antolatzaileak. Nahiz eta ezin bestean, autobusak eta autoak hara heltzeko oren pare batez lerrokaturik egoten diren, tokian berean hartu dituzte beren usaiak Euskal Herriko zazpi probintzietatik etorritakoak.

10. Herri Urratsak, 93koak, orain artekoak hautsi beharko lituzke. Antolatzaileak gogoetak egiten hasi dira jadanik ikusteko zer nola hobetu, denek oraino hobekiago pasatzeko. Xalbador ikastegiko obren bururatzeko baliatuko da aurtengo emaitza; 1993koa, hain segur, Donibane Hendaiako eskualdean bigarren ikastegi baten irekitzeko erabiliko da.



Antonio Campos, Jean Louis Maitia, Gexan Alfarok eta Jean Haritschelar. BOB

Bide iragarki elebidunen alde mintzatu da Alderdi Sozialista

XAN GOENAGA / BAIONA

Estatu, departamentu nahiz herrietako bide iragarki elebidunak izan daitezkeen eskatuko du Ipar Euskal Herriko Alderdi Sozialistaren bulego federalak. Erabaki hori zehaztu zuen Jean Pierre Destrade, alderdiko bozeramaleak, maiatzaren 10ean, Mitterranden lehendakari- tzaren hamargarren urte muga kari, prentsari emana izan zitzaion ageri batean.

Elebitasunaren aldeko jarrera aho batez onartu zuen Ipar Euskal Herri- ko idazkaritza federalak apirilaren 8an eta bulegoak baieztatu 22an. Xedea obratzeko, hiru administra- ziotara zuzenduko du eskaera Alder- di Sozialistak: Estatu, Departamen- dua eta Herriko Etxeak. Hiruei eska- tuko diete tokian tokiko herri hiz- kuntzaz ezar ditzaizen beren ardura- pean dituzten bide iragarkiak. Pyre- nees Atlantiques departamenduan, hiru herri hizkuntza bereizten dituz- te: euskara, biarnesa eta kaskoia.

Bide Nazionalentzat (Ipar Euskal Herrian bi baizik, autopista eta

N.10a) Estatuaren ordezkari kargua betetzen duen Departamenduko prefetarekin hitz egingen dute. De- partamenduaren ardurapean dauden bideentzat Kontseilu Orokorrari gal- deginen diote osa dezan plangintza bat Euskal Herriko Kultur Erakun- deak aurkeztu burubide linguisti- koetan oinarriturik. Azkenik, auzar- pezak hunkituak izanen dira EKE kudeatzen duen Herriko Etxeen Sin- dikataren bidez.

Bere agirian, Jean Pierre Destra- dek argi utzi zuen politikoa dela al- derdiak hartu elebitasunaren aldeko jarrera eta erabaki berri horiek koka- tu zituen azken urte honetan pizkurtu diren borroka linguistikoen testui- guruan. Euskal Herrian Euskaraz taldeak burutzen duen frantses hut- tsezko bide iragarkien tinkaketa kan- paina oroit arazi zuen baita ere orain arte kanpaina horrek Departamendu eta Estatuari galerazi diena: 2 milioi libera (36 milioi pezeta). Adminis- trazioak elebitasunaren urratsa ematen ez duen arte, tinkaketa lane- tan dihardutenek ez zutela aise amor emanen argi zekusan Destradek.

Irakasleen prestakuntzarako komenioa sinatu da Nafarroan



Hezkuntz erreformak eka- rriko dituen irakasle forma- zio berrirako kurtsoak abia- puntutzat harturik Nafarroako Go- bernuak eta Irakasle Zentruen Federazioak akordioa sinatu dute. Irakasleen formazioarako kurtso berriak 1991, 1992 eta 1993 urteetan izango dira. Irakasleen eguneroko- tasuna eta formazioa lortzea da ko- menioaren helburua, «hezkuntza maila hobetzea» izateko. Nafarroa- ko Irakasle Zentruen Federa- zioak pertsonala, ekipamendu eta Nafarroako Hezkuntza Tekniken Institutua martxan jartzeko behar di- ren zerbitzuak, finantziarioa eta bere garapenerako behar diren aktibita- tetan lagunduko du.


Ingurugiroarekiko ezagutza aberasteko 'Thintza' aldizkaria aurkeztu da

DONOSTIA

'Thintza' izeneko aldizkari-bule- tina kaleratu berri du Ingurugiroa- rekiko Ikasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak (IIHII). 'Thintzak' ingurugiroaren hezkun- tza sakontzeko tresna izan nahi du egileek aurkezpenean aitortu dute- nez. «Joan-etorriko komunikabide tresna arina» izan nahi du eta horre- terako garrantzia berezia eman diote ikastetxe batzuk eta besteetan egiten diren esperientzien trukeari. Espe- rientzia ezberdinak erakustez gain, dauden baliabiden berri eman nahi du, hausnarketarako tarte ere eskai- ni nahi du 'sakontzen' izeneko sai- lean.

BIZIA

bonsai bat
dugu
zuretzat



Informazio gehiago
zure kioskoan dagoen
hilabete hontako alean
edo

telefono honetan
94 / 447 84 14



BIZIA

Euskalherriko
ekologia eta osasunerako
aldizkaria.